

G. ARESTI ETA BITAN BANATZEN DEN ELKARRIZKETA.—Igaz, Bilboko *Zurgai* aldizkariak zenbaki berezi bat eskaini zion Gabriel Aresti zenari, Karlos Garaikoetxea lehendakari ohiaren sarrerazko hitzekin, euskarazko eta gaztelerazko zenbait idazleren lanekin, argazkiz eta marrazkiz ongi eta txukun hornitua.

Aldizkari horren 34-37 orrialdeetan Arestiren eskuizkribu argitara gabekoa aurkezten zuen Jon Juaristik, elebitara, «Topet-Etxahonen kontrako judizio berria - El nuevo juicio contra Topet-Etxahoun». Aresti eta nere artean erdi elkarrizketa gisako gogoeta ematen du. Sarrerako hitzetan Juaristik dionez: «Ez dago fetxaturik, baina ziur aski Juanito San Martinek jakinen du noiz eskribatu zen».

Egia esan, nik ez nuen idazki horren berririk, naiz eta elkarrizketa gisara ari diren bietako batek nere izena eraman. Lantxo hori bere kabuz egin zuen Arestik, baina antz ematen diot noizkoa den. 1966an, Eibarren egin zuen egotaldian, bion artean euskal poesiaren antologia hautatua egitea pentsatu genuen. Lizardi eta Etxahun zaharraren balioak neurrizgain jartzen genituen zalantzak zituen Arestik eta bi poeten laneri buruz luzaz mintzatzen ginen, beren poesiak irakurriaz eta aztertuz. Lizardiren kasoan laster amor eman zuen, baina Etxahun ez zuen hain gogoko. Jon Juaristik aurkitu eta aurkeztu duen eskuizkribuan elkarren artean erabili genituen ideak eta aburuak datoz, naiz eta neri erasten didan guzia zeharo berdina ez izan. Eta, data egitekotan, 1966. urtearen azkenaldean edo 1967.aren lehen partean jarriko nuke.

Elkarrizketa gisako idazki hori, unetan bakarrizketa dela esango nuke, zeren Arestik berak nik zer pentsa nezakeanaren usteak ere gaineratzen bai ditu.

* * *